

**IRUNGO ZERBITZU PRIVATU ETA
AKADEMIETAN EUSKARAREN ERABILERA
BULTZATZEKO EGITASMOA: EGOERA
SOZIOLINGUISTIKOAREN AZTERKETA
ETA AURRERA BEGIRAKO LAN-ILDO
NAGUSIEN DISEINUA
(III. FASEA)**

Donostia, 2012ko abendua.



AURKIBIDEA

0.- SARRERA ETA METODOLOGIA.....	3
1.- IRUNGO AKADEMIEN EZAUGARRI OROKORRAK: JARDUERA ARLOA, BEZEROEN EZAUGARRI NAGUSIAK ETA LANGILE KOPURUA	5
1.1.- Akademien jarduera arlo nagusia	5
1.2.- Ikasleen ezaugarri nagusiak	6
1.3.- Akademietan lan egindako pertsonak	7
2.- EUSKARAREN EZAGUPEN MAILA.....	8
2.1.- Akademietako bezeroen euskararen ezagupen maila	8
2.2.- Akademietako pertsonalaren euskararen ezagupen maila	9
3.- EUSKARAREN ERABILERA MAILA.....	11
3.1.- Euskararen erabilera maila ahozko komunikazioetan.....	11
3.2.- Euskararen erabilera maila idatzizko komunikazioetan	12
4.- EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO INTERESA	14
5.- AURRERA BEGIRAKO LAN-ILDOAK.....	23
5.1.- Komunikazioa: egitasmoaren emaitzen aurkezpena	23
5.2.- Irungo akademietan hizkuntza normalizazioa aktibatzekeo prozesua abian jartzea.....	24
ERANSKINAK:	
1.- Irungo akademien zerrenda, galdetegiko zenbait galderari emandako erantzunak zehaztuz	28
2.- Emaitza nagusien txostena e-mailez jaso nahi dutela adierazi duten akademien zerrenda eta beren posta elektronikoak	30
3.- Informazio bilketarako erabilitako galdesorta	31

0.- SARRERA ETA METODOLOGIA

Irungo akademitan euskararen sustapenerako dinamikak aktibatzeke lan prozesua bideratzea helburu duen proiektu honek, 2008ko abenduan Siadecok aurkeztu eta Irungo Udaleko Euskara Arloak onartutako proposamen teknikoan agertzen da. Izan ere, proposamen horrek, herriko merkataritza eta ostalaritza arloan euskararen normalkuntzan eragiteko komunikazio estrategia eta jarduera plangintzaren kontrataziorako Irungo Udalak deitutako lehiaketa publikoari erantzuten zion.

Proposamen tekniko horretan planteatutako lan prozesu metodologikoaren baitan, lehentasunezko eragin segmentuetan euskararen erabilera dinamizatzea aurreikusten zen, eta segmentu horien artean, akademitan eragitea aurreikusten zen.

Segidan, egitasmoan parte hartu duten akademiak zehazteko jarraitutako prozesuaren inguruko datuak ematen dira: hasierako unibertsoan egindako arazketak eta akademiekin izandako harreman-prozesuan gertatuko intzidentziak.

Azterketa honen unibertsoa Irungo akademiek osatu dute. Eta abiapuntua, Irungo Udaleko Euskara Zerbitzutik, 44 akademiak osatutako zerrenda. Zerrenda horretan 5 akademia errepikatuta ageri ziren eta 1 lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimendua zen, ez ohiko akademia. Gainerako 38 akademiatik, 27 inkestatzea lortu da. Jarraian unibertsoan izandako intzidentziak:

I. Taula: Akademien unibertsoa eta azterketan parte hartutakoak: depurazio-prozesua

	Akademia Kopurua
Udal Euskara Zerbitzutik pasatako zerrenda (abiapuntuko unibertsoa)	44
Zerrenda horretan errepikatutakoak	-5
Lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimendua da, ez ohiko akademia	-1
Unibertso erreala	38

2. Taula: Kontaktazio prozesuaren emaitza nagusiak: intzidentziak eta galdetegiari erantzundako akademiak

		Akademia Kopurua
Harremanetan jarri eta galdeketari erantzun dio		27
Arrazoi desberdinak direla eta, egitasmotik kanpo gelditutako akademiak	Ezinezkoa gertatu da harremanetan jartzea (behin eta berriz saiatu ondoren, ez da lortu beraiekin harremanetan jartzea)	5
	Ezinezkoa gertatu da erantzuna jasotzea (harremanetan jartzera iritsi bai, baina ez da lortu galdeketa betetzea)	3
	Ez du galdeketa erantzun nahi izan	1
	Akademia itxita dago jada	2
Unibertso erreala		38

Abiapuntua Irungo Udalak osatutako zerrendan agertzen ziren 44 akademia izan dira. Hasierako unibertso horren arazketa egin (errepikatutakoak eta ez ohiko akademiak kendu) eta azkenean unibertso erreala 38 akademiez osatuta gelditu da.

Unibertso horretako akademiak banan-banan bisitatu eta 11, arrazoi desberdinengatik (ezinezkoa arduradunarekin elkartzeko, erantzun eza, itxita) egitasmotik kanpo gelditu dira. Beraz, azkenean, informazioa emanez egitasmoan parte hartu duten akademiak 27 izan dira.

Metodologiari dagokionez, egitasmo hau aurrera eramateko, zuzeneko informazioa biltzeko teknikak erabili dira.

Hain zuzen ere, erdi-egituratutako galdetesorta bat diseinatu da, akademietan informazioa banan-banan jasotzeko.


Informazio bilketarako landa-lana hasi baino lehen, Irungo Udaleko Euskara Arloak gutuna igorri zien herriko akademia desberdinei proiektu honen berri emateko eta hastekoa zen galdeketa prozesuan beren parte hartzea eskatzeko.

Landa-lan prozesua, 2011ko ekainean abiatu zen. Horretarako, diseinatutako galdetesorta prestatu eta akademia guztiei posta-elektroniko bidez bidali zitzaizen on line betetzeko aukera izan zezaten.

Landa-lan prozesu osoan zehar, Siadecok etengabeko jarraipen lana burutu du, galdetesortaren betetze prozesuan akademiekin banan banako zuzeneko harremanak mantenduz beharrezkoak izan diren argibide eta informazioa emateko.

I.- IRUNGO AKADEMIEN EZAUGARRI OROKORRAK: JARDUERA ARLOA, BEZEROEN EZAUGARRI NAGUSIAK ETA LANGILE KOPURUA


I.1.- Akademien jarduera arlo nagusia



Azterketan parte hartutako akademien ia erdiak hizkuntza akademiak dira (12 akademia, horietako gehienak ingeles akademiak). Zazpi arte akademia dira (musika, marrazketa eta pintura, dantza...), eta bost ikasketa akademia. "Bestelako akademiak" bi dira: bata ikasketa eta informatika akademia da; eta bigarrenean Txinako medikuntza eta medikuntza naturala irakasten dute.

1.2.- Ikasleen ezaugarri nagusiak

2. Grafikoa: Irungo akademietako bezeroen ezaugarri desberdinen rankinga, akademietan daukaten pisuaren arabera (oso altua + altua + nahikoa altua)



Iturria: Siadeco, 2011.

Irungo akademietako arduradunek egindako estimazioen arabera, honela banatzen dira akademiak bezeroek dituzten ezaugarri nagusiei jarraiki: 22 akademietan ikasle gehienak irundarrak dira eta 17tan Irungo ikastetxetako 16 urte arteko ikasleak. Horien ondoren, pisu adierazgarria dute baita ere ondoko ezaugarrietako akademiak: lanean ari diren ikasleak dituztenak (12), "bestelako ikasleak" dituztenak (10 -adibidez: ikastetxeak, enpresak, jubilatuak, etab.-) eta unibertsitateko ikasleak dauzkatenak (9).

1.3.- Akademietan lan egindako pertsonak

3.Taula: Akademiak, 2011ko lehen hiruhilekoan batez beste lan egindako pertsona kopuruaren arabera

	Kopurua	%
Pertsona 1	9	33,3
2 pertsona	6	22,2
3-4 pertsona	6	22,2
7-8 pertsona	3	11,1
12 pertsona	1	3,7
23 pertsona	1	3,7
Zehaztu gabe	1	3,7
GUZTIRA	27	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

Sortutako enpleguari dagokionez akademia hauek, oro har, txikiak direla esan daiteke. Izan ere, 9 akademiatan pertsona bakarrak egiten du lan, eta 6 akademiatan 2 pertsonak egiten dute lan. Hau da, aztertutako akademien erdian baino gehiagotan 1-2 pertsonak besterik ez dute lanik egiten.

Beste 6 akademiatan 3-4 pertsona ari dira lanean, eta guztira 5 dira 7 langile edo gehiago dituztenak. Horien artean daude 12 langile dituen ingeles akademia bat, eta 23 langile izan eta hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen akademia / enpresa bat (horrek ez du esan nahi 12 edo 23 pertsona horiek egun osoko dedikazioarekin ari direnik lanean bertan).

2.- EUSKARAREN EZAGUPEN MAILA

2.1.- Akademietako bezeroen euskararen ezagupen maila

4. Taula: Akademien banaketa, ahoz euskaraz komunikatzeko gai diren bezeroek duten pisuaren arabera

	Kopurua	%
Bezero guztien %75 baino gehiago	10	37,0
Bezeroen %51 eta %75 artean	4	14,8
Bezeroen %25 eta %50 artean	8	29,6
Bezeroen %25 baino gutxiago	3	11,1
Ez dakit / Erantzunik ez	2	7,4
GUZTIRA	27	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

Irungo akademien erdian baino gehiagotan, euskaraz hitz egiteko gai diren bezeroak %50 baino gehiago dira: zehazki, 10 akademiatan euskaraz komunikatzeko gaitasuna duten bezeroak %75 baino gehiago dira eta beste 4tan %51 eta %75aren arteko pisua dute.

Beste 8 akademiatan bezero euskaldunek %25 eta %50 arteko pisua dute. Eta azkenik, 3 akademiatan, bezeroen %25 baino gutxiago dira euskaldunak.

5. Taula: Akademien banaketa, idatziz euskaraz komunikatzeko gai diren bezeroek duten pisuaren arabera

	Kopurua	%
Bezero guztien %75 baino gehiago	10	37,0
Bezeroen %51 eta %75 artean	4	14,8
Bezeroen %25 eta %50 artean	3	11,1
Bezeroen %25 baino gutxiago	7	25,9
Ez dakit / Erantzunik ez	3	11,1
GUZTIRA	27	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

Akademiaren erdia baino gehiago dira baita ere idatziz euskaraz komunikatzeko gai diren bezeroen proportzioa %51 edo altuago dutenak: zehazki, 10 akademiaren euskaldun alfabetatuak %75 baino gehiago dira eta beste 4tan %51 eta %75 arteko pisua dute.

Bestalde, 7 akademiaren bezeroen %25 baino gutxiago dira euskaraz idazteko gai.

2.2.- Akademiaren pertsonalaren euskararen ezagupen maila

6. Taula: Adierazi mesedez enpresa edo akademiaren 2011ko lehen hiruhileko batez besteko enplegua (langile kopurua), kargua, adina eta euskararen ezagupen-mailari jarraiki¹.

Kargua	Pertsona kopurua guztira		Pertsona kopurua adin-tartearen arabera			Euskara-maila	
			≤ 30 urte	31-45 urte	>45 urte	Euskaraz ulertu eta hitz egiteko gai direnen kopurua	Euskaraz irakurri eta idazteko gai direnen kopurua
	Kop.	%	Kop.	Kop.	Kop.		
Zuzendaritzako lanpostuak	11	11,0	-	6	4	2	1
Administrazioko lanpostuak	6	6,0	2	2	2	3	3
Irakasleak/hezitzaileak	81	81,0	7	50	25	21	18
Teknikariak / profesionalak	1	1,0	-	1	-	-	-
Beste lanpostuak	1	1,0	-	-	1	-	-
GUZTIRA	100	100,0	9	59	32	26	22

Iturria: Siadeco, 2011.

2011ko lehen hiruhilekoan, Irungo akademiaren 100 pertsona ari ziren lanean: horietatik gehien gehienak irakasleak ziren, 81 pertsona hain zuzen ere. Langile guztien erdia baino gehiago (59 pertsona) 31-45 urte artekoak ziren eta beste 32 pertsona ziren 45 urte baino gehiago zituztenak.

Oro har, 100etik 26 pertsona ziren euskaraz ulertu eta hitz egiteko gai zirenak eta 22 irakurri eta idazteko gaitasuna zutenak.

Irakasle/hezitzaileen artean, laurdenak zuen euskaraz hitz egiteko gaitasuna (21 pertsona hain zuzen ere) eta zertxobait gutxiago ziren irakurri eta idazteko gaitasuna zutenak (18 pertsona).

¹ Oharra: Galdekizuna erantzundako akademia batek ez du bere enplegatuei buruzko daturik eman. Taula honetan beraz, datuak eman dituzten 26 akademiaren emaitzak jasotzen dira.

7. Taula: Euskaraz hitz egiten eta idazten dakiten irakasleen batezbestekoa, bezeroen (ikasleen) euskararen idatzizko ezagupenaren arabera

Euskaraz idatziz komunikatzeko gai diren bezeroak	Akademiak		Irakasle/hezitzaileak		
	Kop.	%	Guztira	Euskaldun alfabetatuak	% (Kategoria bakoitzeko irakasle guztiekiko)
Bezero guztien %75 baino gehiago	10	37,0	20	5	25,0
Bezeroen %51 eta %75 artean	4	14,8	31	10	32,3
Bezeroen %25 eta %50 artean	3	11,1	3	1	33,3
Bezeroen %25 baino gutxiago	7	25,9	20	2	10,0
Ed/Ee	3	11,1	7	-	-
Guztira	27	100,0	81	18	22,2

Iturria: Siadeco, 2011.

Bezero guztien %75 baino gehiago euskaldunak dituzten 10 akademietako 20 irakasle/hezitzaileetatik, 5 dira euskaraz hitz egin, idatzi eta irakurtzeko gai direnak, %25.

Bezeroen euskaldunen portzentajea %25-%75 artekoa duten 7 akademietan, aldiz, 34 dira guztira irakasle/hezitzaileak, eta horietatik 11 euskaldun alfabetatuak (%33 inguru).

Bezero euskaldunen portzentajea %25 baino baxuagoa den 7 akademietan, irakasle/hezitzaile euskaldun alfabetatuen ehunekoa nabarmen baxuagoa da, %10 hain zuzen ere.

3.- EUSKARAREN ERABILERA MAILA

3.1.- Euskararen erabilera maila ahozko komunikazioetan

8. Taula: Akademietako ahozko harreman-mota desberdinetan hizkuntza desberdinak erabiltzen diren proportzioaren batezbesteko estimazioa

Ahozko harreman-mota	Ahozko harremanetako hizkuntza erabileraren indizea (%)					Guztira
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingeleseaz	Frantsesez	Beste hizkuntzaren batean	
Bezeroekiko harremanetan oro har ahoz erabilitako hizkuntza	12,2	79,6	4,8	3,3	-	100,0
Irakasleek ikasleekin ahoz erabilitako hizkuntza	9,7	50,8	27,6	8,2	3,7	100,0
Enpresako langileen artean ahoz erabilitako hizkuntza	-	64,5	29,3	6,3	-	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

Euskararen ahozko erabilera indizerik adierazgarriena bezeroekiko (hau da, ikasleekiko) harremanetan ikusten da: oro har, ematen diren harreman guztien %12 euskaraz izaten dira eta. Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan euskararen batezbesteko erabilera indizea zertxobait baxuagoa da: %10 ingurukoa.

Enpresako langileen arteko ahozko harremanetan ordea, euskara ez da ezer erabiltzen: nagusiki gaztelania erabiltzen da (indizea %65 ingurukoa da) baina adierazgarria da langileen artean ingelesaren erabilera maila, %29, alegia.

Ahozko harreman mota guztietan, gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza, batez ere bezeroekiko harremanetan: batezbesteko erabilera indizea ia %80koa da.

Irakasle-ikasle arteko harremanetan eta enpresako langileen artekoetan frantsesaren eta batez ere ingelesaren erabilera indize adierazgarriak ikusten dira. Izan ere, kontuan izan behar dugu 12 akademiaren jardura arloa nagusia (guztien %44,4) hizkuntzen – eta batez ere ingelesaren - irakaskuntza dela.

Euskararen ahozko erabilera mugatzen duten faktore nagusiak honako hauek direla aipatzen da:

- Gehien aipatzen den faktorea euskararen ezagupen falta da: kasu batzutan bezeroen aldetik, beste batzutan akademiako pertsonalaren aldetik eta beste batzutan bien aldetik.
- Euskaldunak eta erdaldunak elkartzen direnean, komunikazioa gaztelaniaz izaten da.
- Euskaraz jakin arren, gaztelaniaz komunikatzeko erraztasun eta adierazkortasun maila altuagoa.
- Batez ere hizkuntza akademietan helburu nagusia euskara ez diren beste hizkuntza batzuk irakastea da (batez ere ingelesa) eta horrez gain irakasle atzerritarren presentzia handia da: ingelesak, frantsesak...

3.2.- Euskararen erabilera maila idatzizko komunikazioetan

9. Taula: Akademiako idatzizko komunikazio-mota desberdinetan hizkuntza desberdinak erabiltzen diren proportzioaren batezbesteko estimazioa

Idatzizko harreman-mota	Idatziako harremanetako hizkuntza erabileraren indizea (%)					Ez dagokio	Guztira
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingeleseaz	Frantsesez	Beste hizkuntzaren batean		
Bezeroekiko harremanetan oro har idatziz erabilitako hizkuntza	14,4	73,6	6,7	1,6	-	3,7	100,0
Irakasleek ikasleekin erabilitako idatzizko dokumentazioko hizkuntza	8,8	39,8	31,1	7,1	-	13,1	100,0
Enpresaren barne kudeaketarako dokumentazioren hizkuntza	1,9	90,7	6,5	0,9	-	-	100,0
Jendaurreko errotulazioko hizkuntza (lokalaren errotulu nagusia, barruko errotulazioa...)	16,9	69,5	4	2,1	-	7,4	100,0
Komunikazio, publizitate eta promozio euskarriak (iragarkiak, web orria, triptikoak...)	16,7	66,5	2,1	3,2	-	11,5	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

Euskara idatziaren indizirik adierazgarrienak akademiako jendaurreko errotulazioan eta komunikazio, publizitate eta promoziorako euskarrietan ematen dira: %17 inguru, hain zuzen ere.

Aldiz, idatzizko euskararen erabilera indizirik baxuenak irakasleek ikasleekin erabilitako idatzizko dokumentazioan eta batez ere akademien barne kudeaketarako dokumentuetan ikusten da: %8,8 eta %1,9 hurrenez hurren.

Idatzizko komunikazio mota guztietan, gaztelaniaren erabilera indizeak dira adierazgarrienak. Aipatzekoa da baita ere, irakasleek ikasleekin erabilitako dokumentazioan ingelesak duen presentzia nabarmena: %31,1ekoa. Berriz ere, hizkuntza akademietan ingelesaren irakaskuntzak duen garrantzia erakusten du datu honek.

Irungo akademietako arduradunen ustez euskara idatziaren erabilera gehien mugatzen duten faktoreak ondokoak dira:

- euskararen ezagupen falta, bezero edo/eta langileen aldetik
- hainbat dokumentazio (klaseak emateko, akademien barne kudeaketarako....) errazago/gehiago aurkitzen da gaztelaniaz euskaraz baino.
- bezeroen gaztelaniaren aldeko joera nabarmena, euskara oso gutxik erabiltzen dute.
- gaztelaniaz errazago eta ziurtasun handiagoz komunikatzen da.
- hizkuntza akademietan helburu nagusia ez da euskara irakastea, beste hizkuntza batzuk irakastea baino (batez ere ingelesa eta frantsesa)

4.- EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO INTERESA

10. Taula: Akademia edo enpresaren etorkizunarentzat euskara kontuan hartzeak duen garrantzia

	Kopurua	%
Garrantzia handia	4	14,8
Garrantzia nahikoa handia	14	51,9
Garrantzia nahikoa txikia	5	18,5
Batere garrantziarik ez	3	11,1
Ez dakit / Erantzunik ez	1	3,7
GUZTIRA	27	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

18 akademiatan enpresaren etorkizunerako euskarak garrantzia handia (4 akademia) edo nahiko handia (14 akademia) daukala adierazi dute. Aldiz, euskarari garrantzia txikia edo batere garrantziarik ematen ez diotenak 8 dira.

12. Taula: Euskararen erabilera bultzatzeko akademiek orain arte inolako neurririk hartu duten ala ez


	Kopurua	%
Bai	13	48,1
Ez	14	51,9
GUZTIRA	27	100,0

Iturria: Siadeco, 2011.

Euskararen erabilera bultzatzeko neurriren bat hartu dutela adierazten duten akademiak erdia inguru dira (13 akademia). Hona hemen hartutako neurriak:


- klaseak euskaraz emateko irakasle berria kontratatzea
- irakasleei euskara ikastaroetara joateko aukera eman zaie
- laguntzeko edo apoiorako klaseak euskaraz ere eskaintzen dira
- euskarazko taldeak sortu dira
- klaseak ematerakoan zenbait irakasle euskara gehiago erabiltzen ahalegintzen da, ikasleen taldeak horretarako aukera emanez gero.
- kasuren batean dena ematen da euskaraz.
- akademiaren kanpo komunikaziorako kartelak ele bietan ateratzen dira.

3. Grafikoa: Euskara bultzatzeko Irungo Udaleko Euskara Arloaren laguntza jaso eta euskararen normalizazioan kolaboratzeko interesa (%)



Iturria: Siadeco, 2011.

4. Grafikoa: Irungo akademietan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo bat diseinatu eta horretarako akademietako ordezkariak osatutako koordinazio gunean parte hartzeko interesa (%)




Iturria: Siadeco, 2011.

Irungo 10 akademia dira (%38,5) esparru honetan euskararen erabilera bultzatzeko eratuko den koordinazio gunean parte hartzeko interesa dutela adierazi dutenak, horietatik 2k interes handia erakutsi dute eta beste 8k interes nahikoa.

11 akademiak interes txikia (4k) edo inolako interesik ez dutela (7k) adierazi dute. Azkenik, 6 akademiak ez dute beren interes maila zehazten.

5. Grafikoa: Irungo Udaleko Euskara Arloak akademiarentzat eskain ditzakeen zerbitzuen rankinga, akademiek horien inguruan erakutsitako interes-mailaren arabera (interes handia + nahikoa interes)



Iturria: Siadeco, 2011.

Irungo Udaleko Euskara Arloak eskain ditzakeen zerbitzuek antzeko interes maila sortzen dute akademiaren artean. Izan ere, proposatutako zerbitzu bakoitza interesgarri jo duen akademia kopurua 12-15 artekoa da.

Halere, akademiaren artean interesik handiena sortzen duena honakoa da: akademiaren publizitate euskarrietan euskararen erabilera ziurtatzeko itzulpen eta aholkularitza zerbitzua. Izan ere, 7 dira zerbitzu honetaz baliatzeko interes handia adierazi duten akademiak, eta 8 interes nahikoa. Beraz, garrantzia ematen diote beren bezero potentzialei zuzendutako komunikazio eta publizitate euskarrietan euskararen erabilera ziurtatzeari.

Interes gehien sortzen duten hurrengo hizkuntza zerbitzua honakoa da: zabalpen maila handia duten testuetarako zuzenketa eta itzulpen zerbitzua. Kasu honetan ere, aurreko zerbitzuarekin bezala, 7 dira interes handia erakutsi duten akademiak eta beste 7 interes nahikoa adierazi dutenak.

Hamalau akademia interesatuta agertzen dira euskararen erabileraz bezeroak sentsibilizatzeko egin litezkeen euskarri eta ekintzen inguruan: 5ek interes handia eta 9k nahikoa interes adierazten dute.

Pentsa liteke hauek direla euskararen erabilera sustatzeko jarrerarik proaktiboena duten akademiak, beren bezeroen artean euskararen erabilera bultzatzeko interesa erakusten duten neurrian.

Enpresako langile edota irakasleen hizkuntza prestakuntzaren inguruan interesa agertu duten akademiak 13 izan dira: horietatik seik interes handia adierazi dute, eta zazpi nahikoa interes.

Azkenik, enpresaren irudi eta errotulazioa euskaraz edo ele bietan jartzeko laguntza ekonomikoa jasotzeko interesa, 12 akademiak agertu dute: 6k interes handia eta beste 6k nahikoa interes.

5.- AURRERA BEGIRAKO LAN-ILDOAK

5.1.- Komunikazioa: egitasmoaren emaitzen aurkezpena

- Helburuak:

Burututako lanaren emaitza eta ondorioak, Irungo Udalari eta akademiei aurkeztea eta beraiekin kontrastatzea, lan honen bitartez hasitako prozesuaren hurrengo urrats modura eta aurrera begira planteatu beharreko aukera eta neurrien abiapuntu modura.

- Partaideak:

Irungo Udaleko Euskara Arloa, prozesuan parte hartu duten akademietako arduradunak, Siadeco.

- Prozedura eta egitekoak:

Aurkezpena egiteko data bat finkatu. Bertan, lan honen emaitzak aurrez aurre aurkezteaz gain, jasotako datu nagusiak biltzen dituen dokumentua ere emango zaie akademietako arduradunei.

Era berean, akademietako ordezkariari, euren iritzi eta ekarpenak egiteko aukera emango zaie.

Aurkezpenaren bukaeran, akademietan euskararen erabilera sustatzeko aurrera begira egingo den planteamendua proposatuko zaie. Planteamendu horrek honako zutabeak ditu:

- Irungo Udaleko Euskara Arloaren zerbitzu eskaintza akademietan euskararen sustapena laguntzeko.
- Akademien hizkuntza normalizaziorako helburuak eta horiek lortzeko har ditzaketen neurrien azterketa, beti ere, beren egoera kontuan hartuz.
- Udalaren eta akademien arteko komunikazio eta elkarlanerako koordinazio foro edo mahai baten eraketa eta bertan parte hartzeko gonbitea egitea.

5.2.- Irungo akademietan hizkuntza normalizazioa aktibatzekeo prozesua abian jartzea

- Helburua:

Irungo Udaleko Euskara Arloaren eta akademien artean, komunikazio, elkartruke eta jarraipenerako dinamika bat sortzea da helburua. Horrela, burututako lan honetan oinarriturik, dinamika horrek ondorengo alderdietan eragitea bilatuko du: Irungo akademietan euskararen normalizazioa sustatzearen garrantzia eta interesa aztertu; akademietan euskararen erabilera sustatzeko planteatu daitezkeen helburuak eta neurriak baloratu, beti ere, akademien baldintza eta beharretatik abiatuta; Udalaren aldetik eskaintako zerbitzuen balorazioa; aurrera begira proposatu daitezkeen laguntza eta elkarlanerako aukera berriak; arlo honetan akademiek burututako esperientzien elkartrukea...

- Partaideak:

Irungo Udaleko Euskara Arloa, prozesuan parte hartu duten akademietako arduradunak, Siadeco.

- Prozedura eta egitekoak:

Hasteko, Irungo Udaleko Euskara Arloak euskararen sustapenerako eskain ditzakeen zerbitzu desberdinen inguruan akademiek erakutsitako interesetik abiatuta, elkarlanerako marko orokorra planteatu daiteke, euskararen normalizaziorako arlo edo gai desberdinen inguruan, Udalaren eta akademien egitekoak edo konpromisoak proposatuz. Elkarlanerako marko hori, ondoko taulan agertzen dena izan daiteke.

Gaiak	Udalak eskain ditzakeen zerbitzuak eta horiekiko akademiek adierazitako interesa (interes handia + nahikoa: kopurua eta %)	Akademiek har ditzazketen konpromisoak/neurriak
Hizkuntzaren normalizazioaren inguruko sentsibilizazioa	<p>Euskararen erabileraz bezeroak sentsibilizatzeko euskarri eta ekintzak bideratzea (14 - %51,9). Euskarri horiek, ondoko hauek izan daitezke, besteak beste: kartelak, egutegiak, oharretarako koadernoak...)</p> <p>Pertsonala sentsibilizatzeko ekintzak eta euskarriak prestatzea: euskararen bilakaera eta egoerari buruzko datuen aurkezpenak eta solasaldiak, dokumentazioa prestatu eta banatzea, bezeroen/ikasleen pertzepzioen inguruko azterketak...</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Akademietako pertsonala (kudeaketa arlokoa, irakasleak) sentsibilizatzeko neurriak hartzea: antolatzen diren ekintzetara joatea, sortutako materialak banatu eta horien inguruko iritzi/ekarpenak jasotzea...
Pertsonalaren hizkuntza prestakuntza	<p>Akademietako langile edo irakasleen hizkuntza prestakuntza (13-%48,1). Hizkuntza prestakuntza zerbitzuak ondokoak izan daitezke: euskara ikasteko dirulaguntzak, ikastaro espezifikoak, ikasteko materialak...</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eskaintako zerbitzuak erabiltzea: dirulaguntzak eskatu, antolatutako ikastaroetara joan.. - Prestakuntzaren jasotzaileei bezero/ikasleekin euskara erabiltzeko irizpideak ematea: zein testuinguru eta unetan: agurra, telefonozko harrera, ohikoak diren adierazpenak...
Euskarri eta elementu idatzietan euskararen presentzia areagotzea	<p>Publizitate euskarrietan euskararen erabilera ziurtatzeko itzulpen eta aholkularitza zerbitzua (15 - %55,6)</p> <p>Zabalpen maila handia duten testuetarako zuzenketa eta itzulpen zerbitzua (14 - %51,9)</p> <p>Akademien irudia eta errotulazioa euskaraz edo ele bietan jartzeko laguntza ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzen diren publizitate euskarri guztietan (kartelak, biorrikoak...), euskararen presentzia beste hizkuntzek dutenaren maila berekoa izatea. - Zabalpen publikoa handia duten testuetan (gutunak, fakturak, erreziiboak, ikasketa-programak...) euskararen presentzia, beste hizkuntzek dutenaren maila berekoa izatea. - Kanpo errotulazio nagusian euskararen presentzia beste hizkuntzek dutenaren maila berekoa izatea.
Euskararen erabileraren sustapena	<p>Aholkularitza zerbitzua: dinamizazioa, erabilera sustatzeko irizpideak finkatzeko aholkularitza</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Talde euskaldunak (euskaraz arituko direnak) osatzea: bezero/ikasle eta irakasle/begirale euskaldunak. - Euskaldunak ez diren taldeetan euskararen erabilera sustatu: agurra, ohiko adierazpenak - Euskaldunak ez diren taldeetan euskarari sarbidea ematea: euskara erabiltzeko irizpideak zehaztea taldearen (ikasleen eta irakaslearen) osararen arabera

Iturria: Siadeco, 2011.

Ondoren, Irungo Udaleko Euskara Arloaren laguntza jaso eta euskararen normalizazioan kolaboratzeko eta koordinazio gune batean parte hartzeko akademiek erakutsitako interesaren arabera, akademien tipologia bat osa daiteke: alde batetik, interes handia edo nahiko handia dutenak (10 akademia)² eta bestetik interes gutxi edo batere ez dutenak³.

Arestian planteatutako elkarlanerako markoa, modu desberdinean landu liteke akademien tipologiaiko multzo bakoitzarekin:

- Interesatuekin, harreman eta jarraipen prozesu zuzen eta estuagoa planteatu daiteke: beren egoera eta beharrak kontuan hartuz zerbitzuak egokitzeko aukera baloratzeko, euskararen erabilera sustatzeko akademietan egon daitezkeen aukera desberdinak baloratzeko. Horretarako, harreman bide desberdinak erabil daitezke (aurrez aurreko bisitak akademietara, telefonoz edota posta elektronikoaren bidez, lan bilerak). Nolanahi ere, komunikaziorako eta elkartruckerako, **multzo honekin euskararen normalizaziorako akademien lan-mahai estrategikoa osatzea planteatzen da**. Bertan, akademia hauetako ordezkariak/zuzendariak parte hartuko lukete eta, urtero osatuko litzatekeen programa baten arabera, talde honen 3-4 bilera burutuko lirateke urtean zehar, euskararen normalizazioaren inguruan balorazioak, esperientzien elkartrukeak eta proposamenak konpartitzeko eta horretan oinarriturik, elkarlanerako arloak eta edukiak egokitu eta berritzen joateko.
- Interes gutxi erakusten duten akademiekin, harremanak puntualagoak izango lirateke: zerbitzuak eskaini eta kudeatzeko, hizkuntzaren normalizaziorako har daitezkeen helburuak/neurriak finkatzeko, eskatutako zerbitzuak kudeatu eta baloratzeko (erabilera maila, egokitasuna, eraginkortasuna...), . **Interesgarria litzateke gutxienez urtean behin, osoko bilkura batean denak elkartzea**, proiektuaren ikuspegi osoa eduki eta iritzi eta esperientzien elkartruckerako aukera izan dezaten.

² Akademia horiek ondorengoak dira: T.A. Français, Irungo Marrazketa eta Pintura Udal Eskola, Academia English Actually, Academia de Idiomas Koma, Academia de Acordeón y Trikitixa Etxenagusia, Estudio 2 Academia, Udal Zeramika tailerra, T&T Idiomas, Academia L. Escales, Centro de Logopedia y Pedagogía.

³ Interesgarria litzateke Udalaren Euskara Arloaren laguntza jaso eta kolaboratzeko interesa agertu duten baina koordinazio gunean parte hartzeko interes txikia edo batere ez erakutsi duten edo interes hori zehaztu ez duten akademiekin harremanetan jartzea, beren jarrera aldatu eta, ahal dela, koordinazio gune horretan parte har dezaten. Guztira, egoera honetan dauden akademiak 6 dira: Academia de Danza Ainhoa, Academia Anzaran Idiomas, Academia Aldako-Servicios Informáticos Aldako, Welcome School of English (Avda. Gipuzkoa), Pens and Pencils English School, Academia Domínguez.